

Herri Babesarea

Giza eskubideen defendatzaileen
babeserako euskal udal sarea
Red vasca municipal de protección
a defensores/as de derechos humanos



ON LINE FOROA

Aurpegia ematen dutenen alde

OTSAILAK 9|10|11

FORO ONLINE

Por quienes dan la cara

FEBRERO 9|10|11

Antolatzaileak
Entidades impulsoras



Parte-hartzaileak
Municipios participantes



Finantzatzailea
Financia



Babeslea
Respalda la iniciativa



Egilea: Nazioarteko Bake Brigadak (PBI) eta Mundubat Fundazioa

Argitalpen hau Garapenerako Lankidetzaren Euskal Erakundeak finantzaturako proiektu honen barruan dago kokatuta: “Defendatu ere egiten naute. Euskal gizartea giza eskubideen defendatzaileen babesaren alde mobilizatzen”.

Diseinua: Labox Marketing y Comunicación

Argazkiak: Bianca Bauer, James Rodríguez, Francesca Volpi.

ERAKUNDE BULTZATZAILEAK

NAZIOARTEKO BAKE BRIGADAK (PBI)

Nazioarteko Bake Brigadak (PBI) Nazio Batuen aurrean aitortutako gobernuz kanpoko erakunde instituzionala da, eta 35 urtetik gorako esperientzia dauka giza eskubideen defendatzaileen babesean nahiz bakerako eremuen irekieran. 1981. urteaz geroztik, giza eskubideen alde indarkeriarik gabe lan egiten duten pertsona, erakunde eta erkidego defendatzaileei lagundu die, euren lanagatik egoera arriskutsuan daudenean. Hona hemen PBIk garatutako lana: landan bertan behatzeko brigaden bidez, laguntasun fisikoa eskaintzea; babes integralerako prestakuntzen bidez, erakundeak indartzea; nazioarteko laguntza-sareak eratzea; eragin politikorako ekintzak egitea; eta sentsibilizaziorako, komunikaziorako eta gizartea eraldatzeko hezkuntzarako ekintzak sortzea, giza eskubideen defendatzaileen lana agerian jartzeko.

www.pbi-ee.org

MUNDUBAT

Mundubat gobernuz kanpoko erakundea da, eta erkidegoekin zein herri-erakundeekin lan egiten du, eskubide zein alternatiba sozial eta ekonomikoak aldarrikatzen dituztenean eta partaidetzazko demokrazia sustatzen dutenean. Herritartasunaren ikuspegi kritikoa suspertzen du gure gizartean, eta nazioarteko sare zein aliantzetan oinarritutako lana bultzatzen du. Horretarako elkartasunaren ideia, hain zuzen ere, pertsona guztientzako eskubideen erabilean eta hedapenean oinarrituta dago, genero-berdintasuna kontuan hartuta. Azken 3 hamarkadotan, Mundubatek behar besteko proposamenak garatu ditu, giza eskubideen erakunde defendatzaileei eta erakunde horiek defendatzen dituztenei laguntzeko. Defendatzaileekin egindako lanak baldintza materialak ezarri nahi ditu, hemen entzun dakien, arreta jaso dezaten eta bakean, ordaintzat hartutako justizian, berdintasunean eta giza eskubideetan oinarritutako gizartea lortzeko borroken esperientziak partekatu ditzaten.

www.mundubat.org



ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO GAUDE GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEKIN

Giza eskubideen defendatzaileak gizarte zibileko pertsonak, erkidegoak edo erakundeak dira, eta, banan-banan edo taldean, modu unibertsalean aitortutako giza eskubideak gauzatzeko lan egiten dute. Eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta ingurumenekoak sustatzea eta babestea dute helburu.

Giza eskubideen defendatzailea desagertutako senideentzako justizia, egia eta ordaina bilatzen dituen familia da. Enpresa transnazional bateko meatzaritza-proiektu erraldoiaren aurrean basoak, ibaiak eta lurraldea defendatzen dituen erkidego indigena. Lan-baldintza duinak eskatzen dituen makilako langilea. Etxe-kanporaketa geldiarazten duen auzo-elkartea. LGBTQ+ eskubideen aldeko ekintzailea. Abortua despenalizatzeko mobilizatutako emakumeen taldea. Etorकिनen eskubideen alde lan egiten duen erakundea.

Giza eskubideen defendatzaileak babestea estatuen nazioarteko betebeharra bada ere, pertsona, erkidego eta erakunde defendatzaileak indarkeriaren eta kriminalizazioaren eredu sistemikoen helburu dira. Indarkeriaren eredu horiek, gainera, larriagotu egin dira COVID-19aren ondorioz sortutako osasun-krisi globalaren esparruan. Koronabirusak bete-betean baldintzatutako testuinguru berri horretan, birusaren hedapena geldiarazteko aitzakiapean askatasunak murrizten dituzten neurriak hartu dituzte zenbait estatuk. Nolanahi ere, pandemiak berak ez du zenbait enpresa-sektoreen erauzketa-jarduera geldiarazi, eta meatzaritzaren zein energiaren arloko proiektutzarrak hedatzen jarraitzen dute, erkidegoek manifestaldiak egiteko, aurka egiteko eta euren lurraldeetako egoera agerian jartzeko dituzten askatasunetan inposatutako murrizketen babespean.

Horrez gain, konfinamendurako politikak txirotasuna areagotu dutenez, lan informala bidez egunean eta estaldura sozialik gabe bizi diren milioika lagunek euren diru-sarrera guztiak galdu dituzte, edo lanean jarraitu dute, kutsatzeko arriskua handi-handia izan arren. Etxe barruan egon behar izatean, urik ez duten edo pilatuta bizi diren biztanleen zaugarritasunak gora egin du, emakumeen etxeko lana zein zainketak ugaltu dira eta, aldi berean, emakumeen nahiz neska-mutilen aurkako indarkeria areagotu da. Horrez gain, as-





kotan, neurri horiek biztanle zaurgarrienen eskubideak bermatzeko ezarri ez direnez, kontrol sozialerako, militarizaziorako, jazarpeneko eta protesta sozialaren kriminalizaziorako jarduketak sortu dira, eta eragin handi samarra izan dute espetxeratutako aktibista politikoen artean. Izan ere, kutsatzeko arriskua dute, espetxeetan pilatuta daudelako eta bertako baldintzak osasungaitzak direlako. Gainera, ausaz lekualdatzen dituzte, eta haien prozesu judizialak atzeratzen dituzte.

Birusa ez hedatzeko ezarritako politiken ondorioz eragin horiek guztiak sortu badira ere, COVID-19aren agerpenak are gehiago sakondu du gizarte, ingurumen eta zainketa arloan lehendik zeuden krisien gainjarpenean. Izan ere, giza eskubideen arloko nazioarteko estandarren betearazpenetik urrun-urrun zegoen mundua osatzen zuten. CEPAL-NBEko Berdintasunaren Behatokiko datuen arabera, 2019. urtean 4.640 emakume hil zituzten Amerika Latinoan eta Kariben. Giza eskubideen defentsaren esparruan, Front Line Defenders erakundearen azken txostenaren arabera, 2019. urtean, gutxienez 304 lagun hil zituzten giza eskubideak defendatzeko egiten duten lanagatik, eta, Global Witnessen “Etorkizuna defendatzea” txostenaren arabera, haietatik 212 lurra-
ren eta ingurumenaren defendatzaileak ziren. Hilketa horiek, ordea, ez dira gertaera isolatuak, aldez aurretik eraso judizialak, mehatxuak eta eraso fisi-
koak jasaten dituztelako, beste kriminalizazio-modu batzuen artean.

Testuinguru horren aurrean, administrazioek giza eskubideen defendatzaileen babeserako neurriak hartzeko betebeharra dutela nabarmendu beharra dago, eta, gizartearen, egunez egunekoan giza eskubideen defentsa integratu behar-
raren inguruko kontzientzia kritikoa sustatzen lagundu behar dute. Helburu hori lortzeko, aurtun modu birtualean egingo den Herri Babesarearen 2. Foroa hiru ardatz tematikotan dago antolatuta, eta funtsezko garrantzia dute gaur egungo egoeran:

- 1.** Lurraren eta lurraldearen defentsa
- 2.** Giza eskubideen defentsaren kriminalizazioa
- 3.** Emakume defendatzaileak eta emakumeen eskubideak

Otsailean, zubiak ezarriko ditugu Kolonbiako, Honduraseko, Guatemalako, Mexikoko eta Mendebaldeko Saharako giza eskubideen erakunde defendatzaileekin. Gaur inoiz baino beharrezkoagoa da babeserako sareak sortzea, nazioarteko babesa eskaintzea eta giza eskubideen defendatzaileak era kolektiboan defendatzea.

HERRI BABESAREA: GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEN BABESERAKO EUSKAL UDAL SAREA

ZER DA HERRI BABESAREA?

Herri Babesarea giza eskubideen defendatzaileen babeserako euskal udal-sarea da, eta, bertan, Euskadiko zenbait udalek parte hartzen dute. Sareak udal-administrazioen, euskal erakunde sozialen eta hegoalde globaleko giza eskubideen erakunde defendatzaileen arteko ahaleginak koordinatzea dauka helburu, tokian tokitik giza eskubideen defendatzaileak babesten laguntzeko.

Horretarako, sarearen esparruan, sentsibilizaziorako, komunikaziorako, egituraketarako eta eragin politikorako ekintzak garatzen dira, defendatzaileen laguntzarako eta babeserako sareak sortzen eta euskal biztanleak giza eskubideen defentsaren garrantziaren inguruan kontzientziatzen laguntzeko. **Herri Babesarearen Foro Ibiltariaren 2. edizioa** 2021eko otsailaren 8tik 21era arte egingo da, eta Euskadiko 10 udalek parte hartuko dute bertan. Foro horren bidez, giza eskubideen erakunde defendatzaile gonbidatuen indarkeriarik gabeko erresistentziak jarriko dira agerian, eta haien babes sustatuko da erasoen, mehatxuen, jazarpenen eta erailketen aurrean.




HERRI BABESAREAREN BIGARREN FORO IBILTARIA

Herri Babesareak erakunde defendatzaileen babesean oinarritutako giza eskubideen urteko agenda municipalista sortu nahi du. Giza eskubideen agenda horretako ekintzen barruan, foro ibiltariaren urteko edizioa nabarmentzen da, eta, bertan, astebetez, udal parte-hartzaileek zenbait herrialdetako giza eskubideen erakunde defendatzaileetako taldearen bisitaldia jasoko dute. Epealdi horretan, sentsibilizaziorako, komunikaziorako, egituraketarako eta eragin politikorako jarduerak egingo dira, euskal biztanleek erakunde horiek garatzen duten defentsa-lana zuzenean ezagutu dezaten eta, aldi berean, nazioarteko babeserako duten sarea indartu dadin eta haien babeserako eremuak zein tresnak sortu daitezzen.

Osasun-krisi globalaren ondorioz modu birtualean egingo den Herri Babesarearen Foro Ibiltariaren 2. edizio honetan, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako 10 udalek ahaleginak eta gaitasunak bateratu dituzte ekimen municipalista honen bitartez, **babesteko duten betebeharrarekin** lotzeko. Bi astetan, webinar formatuko sentsibilizazio-ekintzak egingo dira jende guztiarentzat, baita erakunde defendatzaileen eta tokiko instituzioen arteko eragin politikorako bilera birtualak ere. Ekintza horiekin batera, komunikazio-kanpaina ere egingo da, Herri Babesarea ekimena eta erakunde defendatzaileek giza eskubideen defentsaren alde garatzen duten lana euskal gizartean agerian jartzeko asmoz.

Hona hemen Herri Babesarearen Foroaren 2. edizioan parte hartuko duten udalak:



**Batez beste, astero lurraren
eta ingurumenaren 4
defendatzaile hil dituzte
2015eko abenduaz geroztik.
Hilabete horretan, Pariseko
Hitzarmen Klimatikoak sinatu
zen, hain zuzen ere.**

Global Witness.

Etorkizuna defendatzea (2020)



ARGAZKIA: Francesca Volpi. 2017ko maiatza.
Innocenzo Galea Vázquezek indar polizialek nahitaezko kanporaketan erabilitako negar-gasaren biltegiak erakusten dizkigu.



“Emakumeok konfinatuta eta isilik eduki nahi gaituen heriotza-sistema honen aurrean, berriro berresten dugu biziaren zainketa helburu nagusizat hartzen eta “Sareek salbatu egiten dute” printzipioa egia bihurtzen jarraitzeko asmoa dugula”

Emakume Defendatzaileen Ekimen Mesoamerikarra.

2020ko azaroaren 29an, Emakume Defendatzaileen Nazioarteko Egunean, egindako adierazpena.

ARGAZKIA: James Rodríguez. 2013ko maiatza. Nebajeko erkidego maia ixiletako agintariek, lider espiritualek eta emakume biziraulek gizatasun-betebeharren aurkako delituengatiko eta genozidioagatiko kondena ospatzen dute. Kondena hori Epai Auzitegiak eman du Efraín Ríos Montt estatuburu ohiaren aurka, matxinatuen aurkako estrategia ezarri zuelako eta, horren ondorioz, 1.771 erkidegokide zibil maia ixil sarraski zituztelako haren de facto gobernuan, 1982an eta 1983an.

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEN BABESARI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Giza eskubideak (GGEE) gizaki guztien berezko eskubideak dira, haien arraza, sexua, nazionalitatea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, gustu sexualak eta afektiboak edozein direla ere. Giza eskubideak banaezinak dira, elkarren arteko menpetasun estua dute eta honako hauexek dira, besteak beste: bizitzeko eta askatasuna edukitzeko eskubidea; esklabotzapean eta torturapean ez egoteko eskubidea; iritzi eta adierazpen askatasuna edukitzeko eskubidea; lurraldeez ingurumen osasungarrian gozatzeko eskubidea; hezkuntzarako, lanerako eta indarkeriarik gabeko bizitzarako eskubidea.

Estatuek GGEE guztiak babesteko, sustatzeko eta gauzatzeko betebeharra duten arren, planetako eskualde askotan modu larrian urratzen dituztela ikusten dugu egunero. Aldi berean, ikusi ere egiten dugu giza eskubideen defendatzaileak etengabe mehatxatu, eraso, jazarri eta, askotan, hil egiten dituztela.

Edonola ere, babesteko betebeharra ez da estatuetako gobernuen ardura bakarrik. Udal-erakundeek GGEEak sustatzeko eta babesteko betebeharra dute Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen arloan legerian bertan adierazten den bezala. Horrez gain, gizarte zibiletik hurbil daudenez eta harekin harreman estua dutenez (tokian tokikoak eta globalak bat egitean aukerak ere badituztenez), giza eskubideen defendatzaileen babesean eragin ona duten ekintzak egin beharko lituzkete.

Aukera horiek aztertu ondoren, udalok giza eskubideek maila globalean jasaten duten urraketaren larritasunari buruz hausnartu dugu, eta badakigu nolako ahalmenak dituen sare batek, udal-arloan herritarren jarduketa-eremuaren berreskurapenerako ahaleginak bateratzeko orduan. Gainera, udalen ekintza ere bada garrantzitsua defendatzaileen babesean, haien zaugarritasuna gero eta handiagoa dela kontuan hartuta. Hori dela eta, gero eta eremu seguru gehiago, zainketa gehiago, nazioarteko agerikotasun handiagoa eta gure udalerriko biztanleen sentsibilizazio handiagoa egon behar dira.

Aurrean adierazitako guztiagatik, udal parte-hartzaileok, adierazpen instituzional honen bidez, HERRI BABESAREA ekimenarekin bat egiten dugu: Giza Eskubideen Defendatzaileen Babeserako Euskal Udal Sarea. Izan ere, udal-administrazioen, euskal gizarte-erakundeen eta hegoalde globaleko giza eskubideen defendatzaileen erakundeen arteko ahaleginak koordinatzea dauka helburu, sentsibilizaziorako, komunikaziorako eta eragin politikorako ekintza bateratuak egiteko eta, horrela, tokian tokitik, giza eskubideen defendatzaileen babesa sustatzeko.

ARGAZKIA: Emakumeen ibilbide baketsua.



ERAKUNDE DEFENDATZAILE PARTE-HARTZAILEEN PROFILAK


1. ARDATZA

LURRAREN ETA LURRALDEAREN DEFENTSA

Non Violence Act in Western Sahara (NOVA) MENDEBALDEKO SAHARA

Indarkeriarik Gabe taldeak Mendebaldeko Saharako errefuxiatuen kanpalekuetan lan egiten du. Gazte saharar boluntarioen taldea da, eta honako hauxe sustatzeko lan egiten dute: indarkeriarik ezaren kultura, Saharako herriaren erresistentzia baketsua, elkarrizketa, bakearen eraketa eta giza eskubideen zein baliabide naturalen babesa.

Indarkeriarik gabeko estrategiek kanpoko zailtasun askori aurre egin behar diete Saharako errefuxiatuen kanpalekuetan. Indarkeriarik Gabeko Ekintzarako taldearen arabera, honako hauexek dira nabariak: Nazio Batuak Saharako herriari autodeterminazio-eskubidea bermatzeko gai ez izatea eta negoziaketek porrot egitea, nazioarteko erkidegoak ezer egiten ez duelako. Hori horrela izanda ere, NOVAk topaketak eta foroak bultzatzen jarraitzen du "Bakerako Elkarrizketak" proiektuaren esparruan, eta indarkeriarik gabeko ekintzari buruzko tailerrak ere egiten ditu gazteekin, bakearen kultura eratzeko estrategiaren barruan.



Landa Inguruneko Langileen Zentral Nazionala (CNTC) HONDURAS

CNTC 1985ean sortu zen herrialdeko zenbait mugimenduren proiektu bateratuaren ondorioz. Nekazarien aldarrikapenerako gremio-erakundea da, eta lurraren bidezko banaketaren alde borrokatzen da. Honduraseko Langileen Konfederazio Bateratura (CUTH) dago afiliatuta, eta Nekazarien Bideko kidea da.

Afiliatutako familia nekazariei laguntzea du helburu, lurra zein baliabideak eduki ditzaten eta, horrela, Hondurasen nekazaritzako, abeltzaintzako, basogintzako eta arlo agroindustrialeko jarduerak garatu ditzaten, herrialdearen zati handiena landa-ingurunekoa dela eta lurraren edukitzako desberdintasunak nabariak direla kontuan hartuta. Izan ere, FAOko datuen arabera, nekazarien taldeek herrialdeko nekazaritza-gainazalaren %20 baino ez dute lantzen.

Testuinguru horretan, CNTCk lurraren berreskurapenaren alde lan egiten du, lurrik ez duten familiei emateko. Gainera, prozesu horren osagarri, legezko laguntasuna ere ematen die, nekazariak behin betiko jabetza-titulua lortu dezaten.

CNTCk aldarrikapenerako ekintzak antolatzen ditu, hezkuntzako prozesuak garatzen ditu eta baliabideak kudeatzen ditu, genero-ikuspegia kontuan hartzen duten nekazaritza jasangarriko ekoizpen-proiektu errentagarriak betearazteko. Horrez gain, kasuen ikerketak eta jarraipen juridikoa ere egiten ditu: diagnostikoak, lurrak legeztatze-ko izapideak, kanporaketak eta prozesu horientatik judizializatu-tako biktimenzako laguntasuna.



Retalhuleuko Erkidegoen Kontseilua (CCR) GUATEMALA

Retalhuleuko Erkidegoen Kontseilua (CCR) lurraldea eta giza eskubideak defendatzea helburu nagusi duen erakundea da, eta, batez ere, honako hauexei ematen die lehentasuna: ura edukitzeko eskubidea, bizitzeko eskubidea eta eskala txikiko nekazaritza garatzeko eskubidea. Retalhuleuko departamentuko 18tik gora erkidegok osatzen dute (Champericoko udalerrikoak dira, batez ere), eta Mam, K'iche' eta Ixil herrietakoak dira. Euren egituraketa-prozesuaren osagarri, "Hegoaldeko Sarea" izeneko eskualdeko erakundearen sarean ere parte hartzen dute.

2015ean hasi ziren antolatzen, azukrearen monolaborantzaren hedapenak eta eskualdeko azukre-findegiek eskala handian erabilitako agrokimikoek zein pestizidek sortutako eraginei aurre egiteko. Monolaborantza horiek putzuak, ibaiak zein urmaelak kutsatu dituztenez eta lehorte larriak sortu dituztenez, eragin kaltegarria eduki dute ura eskuratzeko aukeran, eta bizibideak ere suntsitu dituzte. Hori dela eta, osasun-arazoak, desnutrizioa eta arnasketako zein giltzurrunetako gaitzak sortu dira.

Bertako zenbait kidek mehatxuak eta larderiak jasaten dituzte etengabe, eta kriminalizatu ere egiten dituzte ingurumenaren eta bizitzeko eskubidearen defentsaren alde borrokatzearen.



2. ARDATZA GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSAREN KRIMINALIZAZIOA

Preso Politikoezikiko Elkartasunerako Lantaldea (CSPP) KOLONBIA

Preso Politikoezikiko Elkartasunerako Lantaldeak (CSPP) egia, justizia eta ordaina sustatzen ditu, arrazoi politikoen-egatik edo estatuaren bidegabekeriagatik askatasunaz gabetuta daudenen ordezkariak juridiko eta humanitarioaren bitartez. Horretarako, ohiko justiziara, Bakerako Jurisdikzio Berezira (JEP) eta nazioarteko auzitegiak jotzen du, askatasunaz gabetutako delitu politikoen auziperatutako edota protesta sozialean parte hartzeagatik judizializatutako tratu duinerako eskubidea, bidezko epaiketa inpartzialerako eskubidea eta gainerako eskubideak bete daitezzen.

Sortu zenetik 45 urte baino gehiago igaro ostean oraindik ere CSPPk askatasunaz gabetutako eskubideen sustapena helburu nagusi daukan arren, lan horri beste lan-lerro batzuk gehitu zaizkio apurka-apurka. Besteak beste, lantaldeak biktimei ematen die arreta, baina, batez ere, estatu-krimenetako biktimei, nahitaezko desagertutako biktimei eta judizioz kanpoko exekuzioetako biktimei. Era berean, aholkularitza ere ematen die lider sozialei. Horrez gain, lantaldeak zigorgabetasunaren aurka ere lan egiten du. Izan ere, biktimak ordezkatzeko zenbait kasu daramatza; esate baterako, Soachako Amen kasua eta Karibeko Kostan “La Popa” Artilleriako 2. Batailoiarekin eta Casanaren XVI. Brigadarekin lotutako judizioz kanpoko exekuzioen kasuak. Halaber, honako honexen alde ere lan egiten du: espetxeetako egoera hobetzea, protesta sozialerako eskubidea edukitzea eta kendutako lurak itzultzea.

Bere jardueren bitartez, CSPPk justizia-sistemari buruzko eztabaida sustatzen du, justizia soziala eskaintzen duen politika kriminal demokratikoa ezartzeko eskatzen du, giza eskubideen aldeko aliantzak sortzen ditu eta ingurumeneko liderentzako bermeak bultzatzen ditu. Aurrekoaren bidez, erakundeak bere ekarpena egin nahi du giza eskubideak, demokrazia eta justizia sozialdun bakea errespetatzen dituen estatuaren eraketan. Nolanahi ere, giza eskubideak defendatzeko egiten duen lanagatik, CSPPk bertako kideen aurkako etengabe-ko jazarpenak pairatu ditu bere historian.

Justiziaren eta Bakearen Elizarteko Batzordea (CIJP) KOLONBIA

Hiru hamarkadatik gorako epean, Justiziaren eta Bakearen Elizarteko Batzordeak landa-ingurune eta hiri-ingurune pertsona eta antolaketa-prozesu afrokoloniarrei, indigenei eta mestizoei lagundu die, gatazkaren eta indarkeriaren eraginpean egon direnean. CIJPk Chocoko, Caucako, Caucako bailarako, Metako eta Putumayoko departamentuetan du agerpena, eta tokiko erkidegoei laguntzen die estatuaren aurrean nahiz eragile pribatuen aurrean euren eskubide ekonomikoak, sozialak, kulturalak, ingurumenekoak, zibilak eta politikoak eskatzen. Horretarako, lurraren eta lurraldearen defentsaren esparru juridikoan, egia argitzen laguntzen die, baita pertsonen zein erkidegoen politika, ingurumen eta gizarte arloan jasandako indarkeriako



egitateen zigor judiziala lortzen ere. Horrez gain, laguntza psikosoziala ere ematen diete, indarkeriaren ondorioz sortutako eraginak kudeatzeko.

2016an Kolonbiako gobernuak eta FARCeke gerrillak Bake Hitzarmena sinatu baino askoz lehenago, erakundeak bakearen eta justiziadun demokraziaren eraketa sustatu du, eta, horretarako, honako arlo hauetako esperientziak bultzatu ditu erakundeen laguntasuna jasotzen duten erkidegoetan: oroimena, egiaren baieztapena, justizia eta ordaina.

Justiziaren eta Bakearen Elizarteko Batzordeak lan-ardatz horiek guztiak jarzen ditu agerian, informazioaren zabalkunde handiaren bitartez. Horretarako, txostenak, ikus-entzunezko dokumentalak eta alertak egiten ditu jendaurrean. Argitalpen eta alerta horiek lagundutako erkidego afrokolonbiarren, mestizoen eta indigenen babesak bultzatzen dute, batzordeak nazio-mailan eta nazioartean daukan babes-sare zabalari esker.

CIJP tradizio erlijioso eta espiritualean dago oinarrituta, eta honako hauxe babesten duela baieztatzen du: “pertsonen eta antolaketa-prozesuek euren lurraldeko bizi-proiektuetan sorrarazten dituzten hainbat eratako motibazioak, gizarke eta ingurumen arloko justizian izaera ederra lortzeko”.

Libertad Korporazio Juridikoa (CJL) KOLONBIA

Libertad Korporazio Juridikoa 1993an sortu zuen zuzenbideko profesionalen talde batek, Medellingo hirian giza eskubideak arlo juridikotik defenditzen eta sustatzen zituen erakundea eratu beharra zegoela sentitu zutenean, justizia soziala eskaintzen duen bakearen eraketa sustatzeko asmoz. Bere lanaren ikuspegi nagusietakoa nahitaez lekualdatutako edo nahitaez lekualdatuak izateko arriskuan dauden erkidegoen defentsa eta laguntasuna dira, baita hiria “garatzeko” proiektuengatik edo meatzaritzaren zein energiaren arloko proiektuengatik kanporatuak izateko arriskuan dauden biztanleena ere.

CJLk tokiko erkidegoei eta erakundeei laguntzen die zigorgabetasunaren aurka borrokatzen eta oroimen historikoa eratzten, talde paramilitarrek eta estatuko agenteek egindako krimenak ahaztu ez daitezen. Arlo horretan, CJLk estatuko krimenetako biktimak ordezkatzeko (batez ere, judizioz kanpoko exekuzioetako edo nahitaezko desagerpenetako biktimen senideak), baita judizializazioak jasaten dituzten giza eskubideen defendatzaileak ere. Batzuetan, kasu historikoak dira; esate baterako, Medellingo 13. Komunako bizilagunen aldeko auzi estrategikoak. Bertan, hain zuzen ere, laguntasuna ematen du La Escombrerako hobi bateratuaren kasuan, komuna berean gertatutako hilketetako eta nahitaezko desagerpenetako biktimen beste kasu batzuetan eta La Esperanza beredan gertatutako nekazarien nahitaezko desagerpenetan. CJLk kasu horiek aurkeztu ditu ohiko justiziaren aurrean, Amerikarteko Gortearen aurrean eta, orain, Bakerako Jurisdikzio Bereziko (JEP) trantsizio-justizia berriaren aurrean.

CJLko langileek zenbait eratako mehatxuak eta erasoak jasan dituzte sortu zenetik. Besteak beste, heriotza-mehatxuak jaso dituzte giza eskubideen defentsan garatzen duten jardueragatik, eta amarru judizialengatik abian jarritako zigor-prozesuetan murgildu dituzte.



3. ARDATZA EMAKUME DEFENDATZAILEAK ETA EMAKUMEEN ESKUBIDEEN DEFENTSA

Sierra Madre Aliantza (ASMAC) MEXIKO

ASMAC 90eko hamarkadan sortutako erakundea da, eta Tarahumarako mendizerrako herriekin zein erkidegoekin lan egiten du, haien eskubide hauek sustatzeko: lurraldearen defentsa, elikadura, hezkuntza, kulturaren erabateko betearazpena eta euren lurraldeko baliabide naturalak eskuratzeko lehentasuna.



Indigenen eskubideetan espezializatutako erakundea da, aholkularitza juridikoa ematen die euren lurraldeen zein baliabide naturalen defentsarako eta eragin politikoa garatzen du gobernuko zenbait arlo eta mailatan. Era berean, agintariekin eta gizarte zibileko beste eragile batzuekin hitz egiteko prozesuetan parte hartzen du, erkidegoen eskubideen inguruko sentsibilizazioa sustatzeko asmoz. Horretarako, hiru ardatz nagusitan egituratzen du bere lana: herri indigenen giza eskubideen defentsa, kontserbazio biokulturala eta erkidegoen jasangarritasunaren sustapena, honako gai hauen bitartez: ura eskuratzeko aukera, elikaduraren segurtasuna eta lurzorua elkortasunaren aurkako borroka. Halaber, ASMACEk honako hauexei ere laguntzen die: nahitaez lekualdatutako familiak; eraso, jazarpen eta mehatxuetako biktimak diren erkidegoetako liderrak; eta egiaren, justiziaren, kalte-ordainen eta berriro ez gertatzeko bermeen bila hil dituzten defendatzaileen familiak.

Erakundeak Chihuahuako Hirian dauka egoitza, eta Guadalupe y Calvoko udalerrian kokatutako jatorrizko erkidegoei laguntzen die, hamarkadak daramatzatelako euren lurraldea batez ere basoen legez kanpoko mozketatik defendatzen, ekintza juridikoen bitartez. 2018an Nekazaritzako Auzitegi Nagusiak erkidegoak bere lurralderako eskubidea zeukala aitortu bazuen ere, erkidegoko kideek larderiak zein mehatxuak jasotzen dituzte oraindik, nahitaez lekualdatzen dituzte eta erail ere egiten dituzte. Agerikotasun handieneko zenbait laguni kautelazko neurri kolektiboak ere ezarri dizkie Giza Eskubideen Amerikarteko Gorteak (CIDH).

Emakumeen Ikaskuntzen Zentroa (CEM-H) HONDURAS

Honduraseko Emakumeen Ikaskuntzen Zentroa (CEM-H) 1986an sortu zuten ideologiaren, instituzio erlijiosoen eta alderdi politikoen eraginik ez zeukan erakunde feminista moduan. Emakumeek emakumeentzat eraturako eremu autonomoa da, jakitateak zein jakintzak partekatzeko, botere kolektibo horizontal, sortzaile eta emantzipatzailea edukitzeko eta, horri esker, emakumeek Honduraseko sistema patriarkalean jasaten dituzten zenbait indarkeriari, be-reizkeriari eta zapalkuntzari aurre egiteko.

Erakunde feminista da, eta emakumeen giza eskubideak sustatu eta defendatzen ditu bizimodu onaren mesedetan, emakumeen eta feministen mugimenduaren proiektu politiko emantzipatzailea sustatzeko asmoz. Horretarako, banakako eta taldeko eraldaketa-prozesuak sortzen ditu emakumeen bizitzan, esparru publikoan nahiz pribatuan. Era berean,



ahaleginak ere egituratzen ditu gizarte-mugimenduarekin, emakumeen zapalkuntza, bereizkeria historikoa, indarkeria eta pobrezia sorrarazten dituzten jarduketa eta pentsamendu patriarkalak, kapitalistak eta arrazistak desagerrarazteko.

Erreferente politiko eta soziala da emakumeen giza eskubideak tokian-tokian, nazio-mailan eta nazioartean defendatzeko eta sustatzeko, gizarte-klaseagatik, biztanle indigenak, garifunoak, izateagatik eta nortasun sexual zehatza edukitzeagatik sortutako zapalkuntzak zein bazterketak desagerrarazteko eta, bizimodu onaren mesedetan, arbasoen jakitateak zein jakintza kolektiboak ezartzeko.

Saharako Emakumeen Batasun Nazionala MENDEBALDEKO SAHARA

UNMS (Saharako Emakumeen Batasun Nazionala) masen erakundea da, Fronte Polisarioarekin dago lotuta, Saharako emakumeak ordezkatzen ditu eta funtsezko zeregina betetzen du errefuxiatuen kanpalekuetako sostenguan eta Saharako herri osoaren garapenean.

1974an sortu zen, herri osoak bat egin behar zuelako autodeterminaziorako eskubidearen alde eta oso garrantzitsua zelako emakumeek Saharako gizartean dituzten agerpena eta protagonismoa agerian jartzea.

UNMSen ustez, emakumeek zeresan handia dute gizartearen sustapenean nahiz garapenean eta etorkizun hobearen eraketan. Horretarako, garapenerako programak jartzen ditu abian zenbait arlotan, eta behar besteko taldeak prestatu eta trebatu egiten ditu, erakundearen maila handitzeko gai izan daitezen eta zenbait eremutan parte hartu dezaten: politikoa, soziokulturala eta profesionala. Hartara, emakumeak funtsezko elementua izango dira erabakiak hartzeko orduan eta guztiei aukera-berdintasuna eskaintzen dien gizarte demokratiko tolerantea eratzeko orduan.

35 urteren ostean, UNMSk bere sorreratik dituen balioak berresten ditu, eta, uneotan, beste lan-lerro estrategiko bat hartzen du bere gain: bideetan sakontzea, emakumeek Saharako gizarteko zenbait arlotan duten herri-partaidetza hobia eta handiagoa izan dadin.



PROGRAMA

Webinars



PBI-EE

Mundubat Ongd



10:30am

Chihuahua-Mexiko

11:30am

Honduras
Guatemala

12:30

Kolonia

18:30

Mendebaldeko Sahara
Euskadi

Asteartea, otsailak 9

LURRAREN, LURRALDEAREN ETA INGURUMENAREN DEFENTSA

Central Nacional de Trabajadores del Campo - CNTC (Honduras). **Txostengilea: Lilian Borjas**

El Consejo de Comunidades de Retalhuleu - CCR (Guatemala). **Txostengilea: Abelino Salvador Mejía**

NOVA (Mendebaldeko Sahara). **Txostengilea: Enguiaa Mohamed**

Ehne Bizkaia. **Txostengilea: Unai Aranguren**

Asteazkena, otsailak 10

GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSAREN KRIMINALIZAZIOA. KOLONBIA

Corporación Jurídica Libertad. **Txostengilea: Adriana Arboleda**

Comisión Intereclesial de Justicia y Paz. **Txostengilea: Danilo Rueda**

Comité de Solidaridad con los Presos Políticos. **Txostengilea: Franklin Castañeda**

CEAR - Euskadi. **Txostengilea: Leire Lasa**

Osteguna, otsailak 11

EMAKUME DEFENDATZAILEAK, EMAKUMEEN ESKUBIDEAK

Unión Nacional de Mujeres Saharaui - UNMS. **Txostengilea: Minetu Larabas**

Alianza Sierra Madre - ASMAC (México). **Txostengilea: Isela González**

Centro de Estudios de la Mujer - CEM-H (Honduras). **Txostengilea: Suyapa Martínez**

Euskal Herriko Bilgune Feminista. **Txostengilea: Lur Morales Saitua**

PROGRAMA

Erakunde-bilerak



7:30am

Chihuahua-Mexiko

8:30am

Honduras
Guatemala

9:30

Kolonia

15:30

Mendebaldeko Sahara
Euskadi

Asteartea, otsailak 9

LURRAREN, LURRALDEAREN ETA
INGURUMENAREN DEFENTSA

ERAKUNDE DEFENDATZAILEAK

Central Nacional de Trabajadores del Campo (Honduras)
El Consejo de Comunidades de Retalhuleu (Guatemala)
NOVA (Mendebaldeko Sahara)

UDALERRIAK

- » **Ea**
- » **Elvillar**
- » **Errenteria**

Asteazkena, otsailak 10

GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSAREN KRIMINALIZAZIOA.
KOLONBIA

ERAKUNDE DEFENDATZAILEAK

Corporación Jurídica Libertad
Comisión intereclesial de Justicia y Paz
Comité de Solidaridad con Presos Políticos

UDALERRIAK

- » **Andoain**
- » **Hernani**
- » **Durango**

Osteguna, otsailak 11

EMAKUME DEFENDATZAILEAK,
EMAKUMEEN ESKUBIDEAK

ERAKUNDE DEFENDATZAILEAK

Unión Nacional de Mujeres Saharaus (Mendebaldeko Sahara)
Alianza Sierra Madre (México)
Centro de Estudios de la Mujer (Honduras)

UDALERRIAK

- » **Laudio**
- » **Galdakao**
- » **Irun**
- » **Amorebieta**



Herri Babesarea

Giza eskubideen defendatzaileen
babeserako euskal udal sarea
Red vasca municipal de protección
a defensores/as de derechos humanos